

Aiherra

6 octobre 2011

Antzuola - Aiherra 27 urte !
Ostegun huntan, Aiherra, Izturitze, Donamartiri eta Donoztiriko 3. adinekoek pidaia bat egiten dute Antzuolara eta Arrantzazuko komentura. Antzuolako Herriko Etxeak hango lantegi bat bisitatu aitzin, hamaketakoa eta hurrupaldi bat eskaini behar diote.

Bestalde, aurten 27 urte egiten du Aiherra eta Antzuola 2 herriak adixkidetu zirela. Zonbat elgarretaratze, kurutzatze, elgar gonbidatze ez da geroztik izan bi herrien artean ! Funtsean, adixkidetasun hunen ixtorioa, joan den apirilean idatzi liburu batek dena ongi kondatzen du. Argazki asko badaude hor, ixtorio guziaren lekuko, eta liburua 5 euroren truk Aiherrako Herriko

Etxean aurki daitaite. Hunen titulua da « Antzuola eta Aiherra, mugak zubi ».

Antzuolara autobusez, urriaren 23an !

Urte aldizka eta urtean behin han eta hemen ibiltzen baigira, aurten Antzuolaren aldi da ofizialki Aihertarren errezebitzea. Urriaren 23an, 9tan abiatuko gira Aiherratik. Aurten Oñatiko harpeen bisitatzera gonbidatzen gaituzte. Usaian bezala, bazkari on baten inguruan bilduko dira 2 herrietako adixkideak Antzuolan, eta handik arratsaldeko 6etan itzuli behar ginuke. Orroitu orain beretik egun hortaz, eta eman izenak orain beretik, Aiherrako herriko etxeko Maite idazkariari.



Joan den urtean, Aiherran, publikoa 2 herrien arteko jokoari so

Aiherra

13 octobre 2011

Munduko mus xapelketa, ostiralean Aiherran - Joan den ostiralean Angeluko "AZUREVA" bakantza egoitzan hasirik, helduden ibiakortzean da aurtengo munduko mus

Belzutze batasunak eta Aiherrako Herriko Etxeak ateraldi atsegingarri bat proposatzen dute Aihertar guziri Antzuolako eskualderat, **urriaren 23an, igandez.**



Taldea Goizper lantegiaren aitzinean »

xapelketa, toki berean bururatu, orotara 12 nazioek parte hartzen dutelarik.

Anartean han hemenka ibilki dira munduko muslari hoberenak, Iparralde huntako toki asko bisitatu, baina mus partida zonbeit ere eginez arte. Alabainan, bakoitzak bere herrialdean xapelketa irabazirik, hoberenen artean lehiatzen dira, Munduko Mus xapelduna izaiteko asmoarekin.

Ostiraleko eguna hemen gaindi pasatu beharrez, goizetik bisitatu dituzte Beñat Charritonon Hazparneko lantegia, LAUAK J-Marc Charritonon lantegia Aiherran, Bastida herria, eta azkenean Auxotea jaletxean bazkalduko dira. Bi mus partiden ondotik, Izturitzeko OTSOZELAIKO harpeetan gaindi ibili behar dira. Eguna Attatean bururatu beharra dute ahauri on baten inguruan. Hea Donoztiritar auzoek zer egingen duten ! Parioa libro !

3. adinekoen pidaia ederra - Urtean behin, pidaia bat antolatzen dute Donoztiri, Donamartiri, Izturitze eta Aiherrako erretretatuek. Aspaldi huntan Antzuolara joan beharrek eta, joan den astean dute hango itzuliala egin, 51 lagunek

Ateraldia Antzuolarat urriaren 23an, igandez - Gure bi herrien arteko parekatzearen 25 urteak handizki ospatu ondoan, urri huntan

Egitaraia :

* 08:45etan : Aiherrako Gaztetxetik abiatzea

* 11:00etan : Oñatira heltzea. Han antzuolar multxo batek errezebituko gaitu.

* 11:30etan : ARRIKRUTZ-eko harpeen bisita. Gipuzkoako handienak eta ederrenak omen dira.

* 13:00etan : jo Antzuolara.

* 14ak arte, triki-poteoa herriko karraketan, Aiherra eta Antzuolako trikilariek.

* 14:30etan : Herri bazkaria

* Bazkaldondan, jokoak Antzuolar eta Aihertarren artean

* 18:00 : Antzuolatik abiatzea

Aiherrako Herriko-Etxeak autobusa bere gain hartzen du, eta Antzuolakoak bazkari eta gainerateko guziak. Zatozte saldo haundian eta... formen ! Bazkaltzeko tenore berant denez, bakobak behar dena ekar dezala gosearen borrokatzeko !

Bestalde, oraino ukan ez dutenentzat, "Antzuola-Aiherra, mugak zubi" liburua egun hortan erosten ahaliko da. Oroitarazten dugu liburu hori 25. urtemugaren kari atera zela, eta bi herrien arteko harremanak aipatzen dituela, argazki eta lekukotasun andanarekin.

Izenak eman faltarik gabe **urriaren 17ko berantenez (astelehena)**, herriko-etxeko Maite-ri, bulegoko tenoretan : 05.59.29.64.02, edo mairie.ayherre@wanadoo.fr helbidean.

Aiherra

20 octobre 2011

Bixkotx saltze - Gaineko eskola edo eskola girixtinoko burrasoek jakinarazten dute aurten ere, bixkotx saltze bat antolatzen dutela, Omiainsinduz, eliza atean, meza nagusi aitzin eta ondotik. Meza 10ak eta 1/2tan da. Orroitu orai beretik !

Muslari hoberenak gure artean - Bazela mugimendu iragan ostiralean Auxotea eta Attatean ostatueta. Munduko mus xapelketaren karietara, 12 nazionetarik etorri mus xapeldunak aste batez lehiatu dira beren artean. Angelen hasirik aitzineko larunbatean, egun guziz tokiz aldatu dira mus partidak eginez, bai eta tokiak bisitatu. Joan den ostiralean, Auxotean bazkaldurik, musean Attatean arizan dira eta han berean afaldu. Lehen 2 pareak Euskadi 1 eta Frantzia 2 elgarren kontra

gertatu dira eta hemengoek 4 eta 1 irabazi dute. EUSKADI 1 pare aurtengo munduko xapeldun sailkatu da. Ondoko munduko mus xapelketa, Kanadako Vancouver hirian iragan beharra da. Oraidanik, batzu antolatzen ari dira pidaiaz hara joateko.

Igandean, Antzuolara abiatzea, 9ak ¼ gutitan - Igandean dugu Antzuolarateko gonbita, urriaren 23an. Papertxoetan 9etan abiatuko ginela aipaturik ere, 9ak 1/4tan gira trinket ondoko aparkalekutik abiatuko. Egitara eder bat prestatu daukute : Oñatiko Arrikruz harpe ederren bisita, Antzuolako herri bazkaria eta 2 herrien arteko jokoak. Gibelera itzultzea, arratseko 6tan. Autobuseko toki herriko etxera deituz atxik daiteke, baina erna, kasik bete baitea. Pidaia on guziri !



Auxotean, muslari guziak mahaietan

Aiherra

Zokoa auzoa bestan ginuen

27 octobre 2011



Zoko-ko auzoak joan den ibiakoitzean...

Herriko bestek aintz apamen ukaiten dute urte guziz. Aiherra biziki hedatua izanez, herriko auzo edo kartieretan, beren elgarretaratze edo pestak ere egiten dituzte. Berrikitan, Apairin, Erketan eta Hergaitzen dira mahain on baten inguruan bildu. Joan den ibiakoitzean Zokoa auzoaren aldi zen, hauek Denen Etxean zutelarik hitzordua. Parte hartu duen baten arabera, gaitzeko egun goxoa iragan dute, bazkaria ahotik ezin utzizkoa zutelarik. Aratsean ere, aintzek parte hartu dute. Heldu den astean, Aiherrako Gainak auzoaren aldi!

Omiaseinduz

- Mezen tenoreak : 9etan Izturitzen eta 10ak 1/2tan Aiherran
- Bixkotz saltzea Aiherrako meza aitzin eta ondotik, eliza aitzinean, usaian bezala eskola girixtinoko burrasoek antolatuturik.

Bixenterekin oraindik kondatu behar

Zonbait hilabetez kolpaturik gelditu baldin bada Bixente Oyhenart herritar pilotaria, berriz forman dela erran daitake, berrikitan Arbonan joko berri zoingehiagokako finala ereman baitu Thierry Itoizekin, 40 eta 30 Eric Etchegaray eta J- Marc Lamure-ri nagusituz. Biba xaharrak, eta segi luzaz !

55 Aihertar Antzuolan

Badu orain 27 urte Aiherra eta Antzuola herriak adixkidetu zirela. Berrikitan 25. urtebetetzea ospatu baldin bazen handizki, aurten 2 herri hauien arteko ixtoria kondatzen duen liburu bat ateraia da, joan den maiatzean, elkarrizketa eta argazki andana batez orniturik. Urtean behin biltzen baitira 2 herri adixkideak, Antzuolaren aldi zen aurten, hain zuzen

bederen biltzen baitira 2 herri adixkideak, Antzuolaren aldi zen aurten, hain zuzen



Bazkari alaia

joan den igandean, pesta baten antolatzea, Aihertarrak gonbidatuz.

Autobusez egin dute hango pidaia 55 bat Aihertarrek. Egundinez goxoa pasatu dute, aintzek aspaldiko lagunekin zutela hitzordua. Goizarekin, Arrantzazuko komentutik aski hurbil aurkitzen diren Oñatiko harpe ederrak bisitatu dituzte. Gero bazkariaren aldi Antzuolan, bazkariaren ondotik jokoak. Xinpleki eta goxoki iragan da eguna. Elgarri agurrak egin, eta berriz elgarri hitzeman dugu helduden urtean Aiherran biltzea. Bi aste lehenago, 3. adinekoak ere ibiliak ziren Antzuolan gandi. Hots, bi herri hauien arteko ixtorio eder hunez luzaz molde berean irau dezala !

Aiherra

29 octobre 2011

Etieneta Parachou seroraren jubilaua - Aurten 71 urte eginak ditu, eta badu 50 urte serora egin zela Sarrigaineko Etieneta Parachou. Serora ernea, denetarik maitatua, eskuin eta ezker ibilia baldin bada eskualde askotan, zonbeit urte Afrikako Bolikostan ere egonaldia bat eginik, orain Colomiers hirian du bere egoitza, Tolosa ondoan. Berriki arte, erizain laguntzaile ibilia da erien artatzen, eta orain erretretan sartua baldin bada, segur ez dela geldirik egoiten. Bere autoarekin kilometroen egiteko ez da beldur, eta askotan ikusten dugu hemen gandi, hutsgegitakoak ez dituelarik Ibarreko eta Orreagako beilak. 50 urte baitu serora egin zela, familiaz inguratutik ospatu du gertakari hau Uztaritzeko seroren komentuan, joan den agorriean. Luzaz segi dezala, zain eta bizitasun berarekin, alaitasuna ekartzen.

Ezkontza - Maryse Mendiado Harrietako alabak biziko laguntzat hartu du Ainhoarra den Laurent Lagarde gaztea. Aiherrako elizan betirako baia emanik, aperitifia eta afariak Itsasuko Altzuieta auzoko ostatuan iragan dira giro hoberenan, familiakoez eta adixkideez inguratutik. Zorionak desiratzen ditugu Maryse eta Laurent eta hauen familieri.

Munduko mus xapelketa - Urriaren 8tik goiti abiatuko da aurtengo munduko mus xapelketa. Hunek Argentina, Australia, Kanada, Txile, Espainia, Estatu Batuak, Euskadi, Frantzia, Mexika, Peru, Uruguai eta Venezuela ordezkatzeko muslariak elgarretaratuko ditu. Angelun ofizialki lehen eta azken haitadak jokatzeko baldin badira ere, Iparraldean denbora berean bisitatu beharrean, han eta hemen jokatu dituzte partida batzu, hala nola urriaren 14ean Aiherrako Auxotea ostatuan, arratsaldeko 4etan, ostiralearekin. Izanen dela mugimendu ! Hea zer eginen duten J-Paul Duhart eta Josep Sarraude auzoko Donoztiritarek. Paroia libro !



Etieneta serora anai-arrebez eta ilobez inguratutik, jubilaua egunean